



**Erabakia, 2010eko ekainaren 24koa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztatzea eskuratzeari buruzko araudia onartzeko dena**

Unibertsitateko Eleaniztasun Plana 2005-06 ikasturtean jarri zen abian gure irakaskuntza-  
eskaintzan atzerriko hizkuntzen erabilera bultzatzeko helburu orokorrarekin.

Plan honek UPV/EHUko ikasleek ingelesa/frantsesa ez ezik, espezialitate bakoitzaren  
hizkuntza espezifiko ere ikastea ahalbidetzen du. Horrez gain, ikasleek nazioarteko  
mugikortasun-programetan parte har dezatela erraztuko du. Hori dela eta, ezinbestekoa da  
bermatzea irakaskuntza horiek ematen dituzten irakasleek hizkuntza maila egokia dutela.

Proposamenean agertzen da, plan honetan parte hartu nahi duten irakasleek jakite-maila  
egiaztatu beharko dute, dela titulu ofizial baten bidez, dela Errektoreordetza honek xede  
honetarako deitutako egiaztatze-probak gaitututa.



Hori guztia kontuan hartuta, Euskara eta Eleaniztasun errektoreordearen proposamenari  
jarraituz, Gobernu Kontseiluak

**ERABAKI DU:**

- 1.- Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztatzea eskuratzeari buruzko araudia onartzea.
2. EHAARA argitaratzeko bidaltzea.

Leioa, 2010eko ekainaren 24a

ERREKTOREA  
  
Iñaki Gorizelaia Ordorika


IBARRI NAGUSIA  
  
Eva Ferreira García  


Eva Ferreira García andreak. UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen du dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin.

Erregistro eta Arazo Orokorretako II. Bulegoko buruak izenpetua, 2009ko urtarrilaren 7ko erabakiak eskuordetzan emandako eskumena dela eta.  
Leioa, 2010 (e)ko ekain (a)ren 30... a

Eva Ferreira García. Secretaria General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original.

En la delegación de firma, en virtud de la Resolución de 20 de febrero de 2009, la jefe de Negociado de Registro de Asuntos Generales.  
Leioa, 2010 de junio de 2010





## Ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko araudia

### Atarikoa

### Lehenengo artikulua

- 1.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiriak ziurtatzen du irakasleak ofiziala ez den hizkuntza horretan irakaskuntza eskain dezakeela, eta dagokion egiaztagiria eskuratu ahal izango duela.
- 2.- Aipatutako egiaztagiria, hain zuzen, honako araudi honetan zehaztutako bi modutan eskuratu ahal izango da; alegia, horretarako egiten den proba gaindituta edo baliozkotzeen bitartez.
- 3.- Eskuratutako egiaztagiria baliagarria da UPV/EHUn ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko, eta ez da sekula iraungiko.

Era berean, irakasleen eta ikertzaileen lanpostuen zerrendan ager daitekeen atzerriko hizkuntza ezagutzeko baldintza betetzeko ere erabili ahal izango da.

### Bigarren artikulua

- 1.- Eleaniztasun-gaietan eskumena daukan Errektoreordeari dagokio probak egiteko sistema erabakitzea. Alabaina, ezinbestekoa izango da epaimahaietako kideak C1 edo goragoko mailako hizkuntza-ezagutza





ebaluatzeko arloan eskarmentudunak izatea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan aurreikusitako moduan.

2.- Probek bi zati izango dituzte; idatzia lehenengoa, eta ahozkoa bigarrena. Egiaztagiria eskuratzeko, bi-biak gainditu beharko dira.

3.- Proba idatziak, aldi berean, bi zati izango ditu. Lehenengoa, hainbat ariketa egin beharko dira. Bertan, hizkuntza idatzia, oro har, behar bezala ezagutzen duela erakutsi beharko du egileak. Bigarrenean, berriz, 250-300 hitzeko testua idatzi beharko du, eta bertan erakutsi beharko du baduela nahikoa gaitasun unibertsitate mailako testu bat modu argi eta ulergarrian idazteko (hainbat gai proposatuko dizkiote horretarako).

4.- Ahozko proban, azkenik, azterketa egiten duen pertsonak azaldu beharko du unibertsitate mailako gai bat azaltzeko gai dela. Horretarako, proba idatziaren bigarren zatian egin zaion proposamena abiapuntu hartuta, gaia ahoz landu beharko du, gehienez ere hamabost minutuan.

### **Hirugarren artikulua**

Ikasturte bakoitzean ohiko deialdi bana egingo da.

### **Laugarren artikulua**

1.- Probei honako kalifikazio hauek emango zaizkie: "Gai" edo "Ez-gai". Probak egin ondoren, emaitzen behin-behineko zerrenda argitaratuko da eleaniztasun-gaietan eskumena daukan Errektoreordetzaren iragarki-taulan eta Campuseko hiru Errektoreordetzakoetan. Hala, 10





eguneko epea egongo da, erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igarota, eta probak berrikusi ondoren, behin betiko zerrenda argitaratuko da, modu berean.

2.- Interesa duten pertsonak aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute behin betiko zerrenda horren aurka eleaniztasun-gaietan eskumena daukan Errektoreordearen aurrean. Gehienez ere hilabeteko epea izango dute horretarako, zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Errekurtsoaren arrazoiak aztertu ondoren, eta beharrezko txosten guztiak eskatu ondoren, Errektoreordeak zerrenda berriz osatzeko agindua eman dezake, besteak beste.

3.- Berraztertze Errekurtsoa jarri ezean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du zuzenean.

### **Bosgarren artikulua**

1.- Merezimenduak baliozkotuz ere eskuratu ahal izango da ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria; nola dagokion titulua aurkeztuta, hala bestelako merezimendu batzuk aurkeztuta.

2.- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua aztertuta, UPV/EHUn ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeko, ezinbestekoa izango da C1 edo goragoko mailari dagokion titulua izatea. Europako Kontseiluak onartutako esparru bateratuaren gaztelaniazko bertsioa Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratu du eta <http://cvc.cervantes/obref/marco> webgunean eskuratu daiteke. Lehen Eranskinean, C1 mailaren eta frantseseko, ingelesko eta alemaneko tituluen arteko baliokidetze-taula





erantsi da, adibide gisa.

3.- Beste merezimendu batzuk aurkeztu, eta baliozkotze-aukerara jo nahi dutenek eskaera egin beharko diote eleaniztasun-gaietan eskumena daukan Errektoreordeari. Bertan, aipatutako egiaztagiria eskuratzeko dituen merezimenduak zehaztu beharko dituzte, eta horien ziurtagiriak gehitu beharko dituzte. Ofiziala ez den hizkuntza bakoitzeko Batzorde bat eratuko da, Errektoreordeari laguntzeko. Batzorde hori, hain zuzen, aipatutako hizkuntzan irakaskuntza eskaini duten irakasleek osatuko dute.

4.- Honako hauek beti kontuan hartzeko merezimenduak izango dira:

- Baliozkotu beharreko hizkuntzan unibertsitate-gradu oso bat edo pareko titulu bat egin izana.
- Baliozkotu nahi den hizkuntzan tesia egin eta defendatu izana, aipatutako hizkuntza ofiziala den unibertsitate batean.
- Hizkuntza Eskola Ofizialen Gaitasun Agiriak.
- Gutxienez, unibertsitatean 100 ordu irakatsi izana baliozkotu nahi den hizkuntzan. Ezinbestekoa izango da aipatutako unibertsitateak emandako egiaztagiri ofiziala aurkeztea.

5.- Aurreko atalean aipatutakoak ez beste merezimendu batzuk aurkeztuta baliozkotzeko eskaera egin, eta nahikoak ez direla erabakiz gero, halaxe jakinaraziko zaio eskatzaileari idatziz, eta 10 eguneko epea emango zaio, alegazioak aurkezteko.

6.- Eleaniztasun-gaietan eskumena daukan Errektoreordeak erabakiko du behin betiko Ebazpena zein den. Horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

7.- Berraztertze Errekurtsoa jarri ezean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean.

### **Baliokidetasunen Xedapen Gehigarria**

Honako araudi hau indarrean jarri baino lehenago eskuratzen diren egiaztagiriek, bestalde, arau honetan aurreikusitako prozedurarekin bat eginda eskuratutakoen ondorio berberak izango dituzte.

### **Azken Xedapena**

Honako araudi hau 2010/2011 ikasturtean jarriko da indarrean.





1. **Eranskina.** Hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru bateratuaren mailen eta hainbat tituluren arteko baliokidetze-taula.

<u>Hizkuntza</u>	A1	A2	B1	B2	C1	C2
<u>Alemana</u>	<u>Start Deutsch 1</u>	Start Deutsch 2	<u>Zertifikat Deutsch (ZD)</u>	<u>Test DaF o Zertifikat Deutsch für den Beruf ZDfB</u>	<u>Zentrale Mittelstufen Prüfung (ZMP) o Test DaF</u>	<u>Zentrale Oberstufen Prüfung (ZOP); Kleines Deutsches</u>
<u>Frantsesa</u>	<u>Diplôme d'Etudes en Langue Française (DELF A1)</u>	Diplôme d'Etudes en Langue Française (DELF A2)	<u>Diplôme d'Etudes en Langue Française (DELF B1)</u>	Diplôme d'Etudes en Langue Française (DELF B2)	<u>Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF C1)</u>	Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF C2)
<u>Ingelesa*</u>	ESOL 1-2; Trinity Grades 1,2; Ascentis Anglia ESOL Preliminary Level	<u>Key English Test (KET); Young Learners; BULATS 1; ESOL 3-4; Trinity Grades 3,4; Ascentis Anglia ESOL Elementary Level</u>	<u>Preliminary English Test (PET); BEC 1; BULATS 2; ESOL 5-6; Trinity Grades 5,6; Ascentis Anglia ESOL Intermediate Level</u>	<u>First Certificate in English (FCE); BEC 2; BULATS 3; ESOL 7-9; Trinity Grades 7,8,9; Ascentis Anglia ESOL Advanced Level</u>	<u>Certificate in Advanced English (CAE); BEC 3; BULATS 3; ESOL 10-11; Trinity Grades 10,11; Ascentis Anglia Proficiency Level</u>	<u>Certificate of Proficiency in English (CPE); BULATS 5; ESOL 12; Trinity Grades 12; Ascentis Anglia Masters Level</u>

